



Pil-pilean

TURKIDIA

Soraluzeko hilabetekaria
2021eko iraila · 378 alea

25 urte zuekin



PEDRO LARRAÑAGA
MUGIKA, IKERLARIA

**"EUROPAN ERREPARO
HANDIA DAGO ADIMEN
ARTIFIZIALAREKIKO"**



PIL-PILEAN 378

2021ko iraila

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Lian Monserrate muralgilea
 - 6 **Begira** Bidean
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** Txakolina
 - 16 **Plazan bazan** Umeendako jolasak
 - 20 **Erreportajea** Pedro Larrañaga Mugika
 - 26 **Kirola** Pilota txapelketa
 - 27 **Kultura** Musika eskolarako bekak, 'Harria' erakusketa
 - 28 **Gure artistak** Juan Manuel Arruabarrena
 - 30 **Pil-pileanen artxibotik**
 - 34 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Lorea de Castro Lete *Harremanak sendotzeko baliabide indartsua*
 - 18 **Gutunak** Plazentzia Kantuan *Lurragoxo har zaitzala*
Sororak talde feminista *Emakumeen murala*
Pil-pilean, Iratxo eta Arrano *Errigorako saskiak laster*
 - 18 **Komiki tira**
 - 19 **Hausnarketa** Zein ospakizun igarri duzu faltan azken urtebete pasa honetan?
 - 19 **Puntuak** Alberto Iñurrieta *Nora begira, hura ageri da*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Musika eskolak plan bat du



LOREA DE CASTRO

Musikazalea naiz, oso. Musikaria ere bai, nire gaitasunen barruan. Hainbat instrumentu jotzen ditut, batzuk nahiko txukun eta beste batzuk ez hainbeste. Musikak nire bizitzan garrantzia handia izan du, txikitatik.

Musika ikasteko nire lehen pausoak Ines Marirekin eta Musika Eskolan eman nituen. Flauta trabesera, pianoa, abesbatza, musika hizkuntza... Ondoren Ezoziko Ama abesbatzan bi urte egin nituen, Darling Shoes taldearekin rock musikara pasa aurretik. Bateria, gitarra, ukelelea, banjoa... nire kabuz ikasi ditut, baina dudarik gabe, jasotako formazioan oinarrituta.

Bazkaloste batean gitarra hartu eta lagunekin elkarrekin abestea modukorik ez dago. Edo txupinazo ostean txarangarekin kalejiran ibiltzea. Edo danbor hots artean Soraluzeke kale estuak zeharkatzea. Edo jaietan Plaza Zaharreko tablatura igo eta gorputza zein arima hustutzea. Edo gaztetzeko aratosteetako kontzertuan talde mitikoen bertsioak jotzea. Pertsonen arteko harremanak sendotzeko baliabide indartsua da musika.

Egun biolontxeloak ikasten dihardut. Gozamina da astero frontoira igo, klasera sartu eta mindfulness ariketa brutal hori egitea. Momentu horretan ez da besterik existitzen. Izan ere, ez dago partitura baten aurrean jartzea bezalakorik neuronen arteko sinapsiak sutan jartzeko.

Iaztik musika eskolako juntan egotea ere dagokit. Azken urtea plan estrategiko bat garatzeko baliatu dugu. Prozesu honetan galdera asko erantzuten saiatu gara, baina baliteke garrantzitsuena hau izatea: Zein da musika eskolaren izateko arrazoia? Ba planean jaso denez, hemen erantzuna: "Soraluze biziagotzeko kultura ekarpena egingo duen eskola izatea, herritarren musikaren bidezko garapen pertsonala (emozionala, kognitiboa, soziala...) sustatuz. Musika eskola herritarra, inklusiboa, anitza, irekia, feminista, euskalduna eta kooperatiboa izango da". Ez dugu erronka makala, beraz. Lau urterako plan bat zehaztu ondoren, orain martxan jartzea dagokigu. Musika Eskolak duen historia eta esperientziatik, eta Soraluzeren nortasunetik abiatuz, herriko eragile desberdinekin elkarlana sustatuko dugu. Ea bide horretan topo egiten dugun!

**"HERRIKO ERAGILE
DESBERDINEKIN
ELKARLANA SUSTATUKO
DUGU, EA BIDEAN TOPO
EGITEN DUGUN"**

“Emakumeen lan eta espazio ikusezinak ikusarazten ditu”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: LEIRE GINEA

Lian Monserrate (AEB, 1981) urtarrilean hasi zen kiroldetik murala lantzen. Abuztuan margotu zuen, Sororak Talde Feministaren ekimenez eta Udalak diruz lagunduta. Artista ezaguna da Monserrate, Leitzako bere murala, adibidez, Streetart360 webguneak urtero osatzen duen munduko ehun mural ederrenen zerrendan dago.

Pozik geratu zara egindako lanarekin?

Bai, gustura. Plazera izan zen Plaentxian lan egitea! Gustatzen zait jende berria ezagutzea eta kalean margotzen erraza da jendea ezagutzea.

Zer irudikatu nahi izan duzu?

Ikusezina ikusarazten du. Emakumeenak izan diren lanak eta espazioak erakusten ditu, ohituraz ikusezin bilakatu eta baloratu ez direnak.

Ilekordak irudikatzen du pertsona horien guztien arteko batasuna eta elkarteak dakarren indarra. Ideia nagusia elkarrekin feministarena izan da, labandaren figura erabiliz espazio ez-mistoak irudikatzeko proposamena egin zuten. Hortik abiatuta, guztiok batera iritsi ginen azken ideia.

Lanegun intentsuak izan dituzu...

Bai, intenso-intensiboa izan zen. Goizeko 7etatik iluntzeko 8etara lan egin nuen egunero; bai, ordu asko behar dira mural bat egiteko. Urtarrilean hasi nintzen dena prestatzen, baina Plaentxiako talde feministako kideek asko lagundu didate, haiek barik ezin izango nukeen egin.

Emakumeak, errefuxiatuak, besarkadak... zure muralak aldarrikapenetik asko dutela dirudi.

Nire ustez obrek herriarekin hitz egiten dute. Espazio publikoan zer jartzen dugun oso inportantea da. Askotan, margotzen ditut emakumeak, errefuxiatuak eta abar; uste dut gai politikoek kalean egon behar dutela. Kaleak hitz egiten badu, oihukatu egin behar da.

1996an muralak egiten hasi zinenetik 700 halako egin dituzu. Zein duzu kuttunen?

Ez daukat. Asko gustatzen zait Leitzako murala eta baita Vallecasko ere. Orain dela hilabete, berriz, Atxondon mural txikitxo bat egin nuen AHTren

kontra eta hura ere asko gustatzen zait. Bakoitzak zer edo zer dauka. Leitzakoa eta Vallecasko handiak eta oso ezagunak dira, baina badaude mural askoz txikiagoak herritarrentzat garrantzia handiagoa daukatenak eta hori asko gustatzen zait.

Baduzu margotzea ez den gustatuko litzazukeen zerbait?

Orain dela urtebete hasi nituen Itsas Garraioko eta Altuerako Patroi ikasketak, Ondarroako Lanbide Heziketan. Urtebete falta zait bukatzeko. Gero errefuxiatuen erreskatean parte hartzea gustatuko litzaidake

Non gustatuko litzazuke mural bat margotzea?

Plaentxian... noski!

Noizbait ezetz esan diozu mural bat margotzeari?

Nire printzipioen kontra izan denean.

Kaleko artea esaten zaio muralak egiteari. Mural guztiak dira arte? Eta grafitiak?

Art is in the eye of the beholder esakerak dioen moduan, norberak badaki zer den artea berarentzat. Nik badakit zer gustatzen zaidan baina ezin dut esan zer den artea... bakoitzarentzat desberdina da.

Bost urte daramatzazu Atxondon eta dakizkizun 5 hizkuntzen artean euskara ere badago. Zergatik?

Euskal herrian bizi naiz eta. Adibidez, Txinan biziko banintz, txineraz ikasiko nuke. 4 hizkuntza bakarrik dakizkit. Euskaraz ikasten ari naiz, baina asko falta zait.

Kataluniatik etorri zara Euskal Herrira bizitzera. Zer moduz bizi zara hemen?

Maite dut Euskal Herria. Dena dauka: mendiak, hondartzak, jende desberdina, jende polita, jende kañeroa, herriak, hiriak...gauza bat bakarrik falta da: eguzkia, jajaja! Uste dut, baita ere, barrura zein kanpora begira dagoen herria dela. Oso gustuko dut dikotomia hori. Jendeari kanpoan gertatzen ari dena interesatzen zaio, ezagutzen ez duenarengatik interesa erakusten du, gauza berriak ezagutzeko interesa, baina aldi berean, nortasuna eta ohiturak gorde egiten dituzte.



Bidean

ARGAZKIA ETA TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

‘Ikasi euskara bidelagun onenarekin’, dio AEK-ren matrikulazio kanpainako aurtengo aukeratu leloak, eta sidekar berezi bat atera dute kalera mezua herriz herri zabaltzen laguntzeko. Sidekarra martitzenean heldu zen Soraluzera eta joan-etorri batzuk eman zituen Kalebarrenen zehar, euskaltegiko ikasleak gainean zituela eta herritar askok harriduraz begiratzen zieten bitartean, dena esan behar bada. Izan ere, euskaltegian matrikulatzeko epea zabalik dago eta halaxe egongo da irailaren 30era arte (eguen). Eskaintza zabala da; A1 edo oinarri oinarrizko mailatik hasi eta C2 edo aditu mailara artekoa (online). Gaur egun, euskaraz ikasteko lehen pausoak ematera doazen herritarrekin batera, asko dira euren ahozko edo idatzizko gaitasuna hobetzea erabakitzen dutenak, dela lanerako, dela eguneroko bizimoduan erabiltzeko. Udazkenean bideari ekingo diozuen guztioi, bidaia on!







Bizikaleko eta Udaleko ordezkariak (EHBildu, EAJ eta PSE-EE) bonuekin.

3.000 bonu, herrian kontsumitzeko

Herriko familia bakoitzak 5 euroko bina txartel eskuratu ahal izango ditu, urriaren 1etik 31ra bitartean, udaletxeko harreran.

COVID-19 pandemiaren osasun larrialdiak sortutako kalteak arintzen laguntzeko, herriko merkataritzan eta ostalaritzan erabiltzeko deskontu-bonuak aterako ditu Udalak. 5 euroko bonu-deskontuak dira, 15 eurotik gorako erosketara edo kontsumizioa egitean erabili ahal izango direnak.

Herrian erroldatutako familia bakoitzak bi bonu eskuratu ahal izango ditu eta nahi izanez gero, biak batera erabili ahal izango ditu, 30 eurotik gorako erosketara egitean; bestela esanda, 30 eurotik gora gastatuz gero, 10 euroko beherapena eskura daiteke bonuen bitartez.

Abenduaren 31ra bitartean

Urriaren 1etik 31ra bitartean eskatu ahal izango dira bonuak, udaletxeko harreran, NANA erakutsita. Erabili, berriz,

urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean erabili ahal izango dira.

Herriko edozein dendatan, tabernatan, jatetxetan, baserriarren postutan edo beste edozein establezimendutan erabili ahal izango dira txartelak, baita Bizikalekoak ez diren saltokietan eta herriko artisauen produktuak erostean ere. Negozioek bete beharreko baldintza bakarra euren helbide fiskala herrian izatea da.

15.000 euro

Udalak 15.000 euro bideratuko ditu kanpaina horretara. Deskontu-bonuak eskatu ahal banatuko dira, denak agortu arte. Abenduaren 31ra bitartean ez badira bonu denak agortzen, Udalak beste kanpaina berrabiatuko du.

Goi mailako gaztak, domekan

Eskualdeko lau gaztagilek euren produktuak ekarriko dituzte domekan, irailaren 26an, Plaza Zaharreko karpan egingo den Gazta Azokara. Soraluzeko Egotzako ahuntz gazta izango da; Elgoibarko Mausitxako ardi gazta; Mallabiko Axelekuko behi-gazta eta Mutrikuko Goienetxeko ardi-gazta. 10:30erako ipiniko dituzte saltokiak, 14:00ak arte.

Plastikoak batzeko zerbitzu berria

Mankomunitateak plastikoak biltzeko zerbitzu berria abiarazi du garbiguneetan. Bidoiak, hodiak, pertsianak, autoen kolpe-leungailuak bezalako plastikoak utzi ahal izango dira Elgoibarko eta Eibarko garbiguneetan. Ermuko eta Mutrikuko garbigunek ez dute toki nahikorik plastikoak biltzeko kutxa horiek kokatzeko.

Herriarrendako aholkulariza

Gizarte eta lan arloetan aholkularitza eskaintzeko zerbitzua zabaldu dute berriro ere, HHE/EPako lokaletan (Baltegieta kalea, 2). Astelehenetan, astearteetan eta asteazkenetan 08:30etik 13:30era bertara daiteke, laguntza soziala eta lanekoa edo online tramiteetarako laguntza jasotzera.

ELIZPE
HORTZ KLINIKA



Zure genako hartz klinika, punta puntako teknologekin lan egiten dugua. Cad-Cam sistema berrituzko erabilien dugua.

Elizburu, 3 behea
SORBALLUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe1@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

IZZAGUIRRE
Igeltzeritza




Erakiri berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforreak • Era gutxietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 967 289

Txoko



Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitariekak, ogitariekak, rasiak, pizzaak, gozaria...
Enkarpetak egiten dira
Tel. 943 75 17 89

Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK



Errenta aitaperenak • Administraziozko lanak
Tratamendu burokratikoak • Lan-urteko aholkularitza
Enpresen kontuzio/ideiotzeak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era, 20190 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Belarrak
lana eta belardenda



Elikagai ekologikoen
Etxerako perbituzia

Santa Ana 22
943 75 30 11

MGS
Seguros



Veronica Galarraga
Gertuko eta segurua

Astelehenerdik ostiralera: 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30
Santa Ana 13
665 744 055

Jatorria jatorria, berriak berriak



eguneko menua, aschuruzuzua, karta eta rasiak, ogitariekak eta hamburgerak, enkarga berriak, familia eta lagun arriko berriak.

Dresnahak 943 75 20 35

HNOS. BENITO
ANAIAK
MUJERES-ALTZARIAK



Sukaldeak, logelak, egongelak, neurrirra egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

Criado
Fruitategia Urdaiegia



Enkarpetak Whatsapppe
Etxerako zerbitzua
Berriak & delicatessen

Astelehenerdik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatak: 09:00-13:00
629 958 536

MENDIZABAL
okidegia
Ogia - Prentsa - Gosariak



Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel.: 943 75 13 99

KLB6



Kalebarran 6
943 57 31 28
Mujer eta nekean modifikazioak

BSB Pepe Jarama VERO MODA | SOLID ESCOPI | AB new balance

ARRANO
taberna



Etxeri eta gozatu etxeko platerak

Etxabuneta 6

BOLIA
TABERNA



Pirinek, ardiak, korbitiak
Gazte-giroko festa

Hortz klinika

Javier Alonso
Mediku Estomatologia
K.Z. 48.000.591

Katia Guillino
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia
odontologia, protetikak, odontopediatria, ortodontia, implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko orokorra (SD): eskaneatza, orto eta tele.

Errabil 1
Tel.: 943 75 16 13



FOGASLER
ITURGINTZA



943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Euskalzaletasunaren alde:








Herritarrak eta senideak oroimen ekitaldian, Soraluzen.



Senideak argazkien ondoan.

Dispertsioaren biktima

Iraillean, 20 urte bete dira Asier Heriz eta Iñaki Saez auto istripuz hil zirela preso zegoen Lourdes Txurruka soraluzetarra bisitatzerako zihoazenean. Egunotan oroimen ekitaldiak egin dituzte.

2001etik, urtero egin dituzte Asier Herizen eta Iñaki Saezen aldeko oroimen ekitaldiak haien lagunek eta senideek, baina aurtengoak, heriotzaren 20. urteurrena izanik, bereziak izan dira.

Istripuaren egunean bertan

Aurten, bi oroimen ekitaldi egin dituzte.

Arratzen izan zen lehena, Iñaki Saez eibartarraren jaioterrian, Arrate Egunean justu; izan ere, orain dela 20 urteko irailaren 8an, Arrate Egunean, gertatu zen bi gazteen heriotza eragin zuen istripua.

Arrateko santutegiaren kanpoko aldean, 100 bat lagun elkartu ziren, Eibartik,

Soraluzetik eta inguruetatik bertaratuta, tartean baita senideak ere. Oroimen ekitaldia, berriz, gazteen lagunen eskutik etorri zen; adibidez, Saezen pisukide izan zen Mikel Gorosabel *Nortonek* Asier Saezek berak EH Sukarrarendako idatzitako kantua abestu zuen, Biharra.

Oroimena eta aldarrikapena

Soraluzen, berriz, irailaren 11n egin zuten Asier Herizen eta Iñaki Saezen aldeko oroimen ekitaldia. Plaza Berria eta inguruak bete egin ziren.

2001eko irailaren 8 hura gogora ekarriz hasi zuten ekitaldia Iraultz Arluziagak eta Larraitz Lakuestak: "2001eko

irailaren 8a zen, zapatua. Bariku iluntzean, bueltara arte, esan genuen elkar, bidaia ona izan eta gure elkartasuna ere zuekin eramán Lourdesi. Goizean, telefono deiak hasi ziren eta gure bihotzek demaseko kolpekada hartu zuten. Buruan zorabioa eta sentimenduak lur jota, apurtuta. Samina, mina, tristura, nahasmena eta amorrua. Istripu larria izan zen, Asier eta Iñaki hilik eta Irantzuz larri zaurituta. Benetan ba, dispertsioa hiltzailea".

Ildo beretik, gogora ekarri zuten, ez direla preso bati bisita egin nahian istripua jasan duten soraluzetar bakarrak, Jesus, Roberto eta Mikel Argaratek ere istripua izan baitzuten preso zegoen Regina Maiztegi bisitatzerako zihoazela.

Hasierako diskurtsoen ondoren, Soraluzeko best dantzarik Agurra eta lore

**ASIER, IÑAKI ETA
IRANTZUZ APARTE
BESTE HIRU
SORALUZETARREK ERE
IZAN ZUTEN ISTRIPUA**



Arrateko ekitaldiko une bat.

eskaintza egin zuten, bertsoak kantatu zituen Eneko Beretxinaga bertsolariak eta segidan etorri zen ekitaldiko unerik hunkigarriena. Senideak zutik jarri ziren plazan zeuden bi gazteen argazkien ondoan eta Lourdes Txurrukak eta Mikel Argaratek haien erretratu bana oparitu zieten, malko artean.

Bizikidetzatza "elkarrekin" eraiki
Bukatzeko, Etixerat elkarteko Patrizia Velezek hitza hartu eta aldarrikatu zuen, besteak beste, "salbuespenezko espetxe-politikak" eragindako heriotzek ere "beren lekua" izan behar dutela "memoriaren mapan, etorkizuneko bizikidetzatza elkarrekin eraikitzen jarraitu ahal izateko".

Azkenik, Iñaki Saezen eta Asier Herizen lagun Iñaki Amuategi *Txistok* eta haien kuadrilako kide Aitor Fernandez izenean Jone Alberdik bi gazteen izaerak eta nortasuna deskribatzen zuten idazki bana irakurri zuten. Bi gazteen lagun ere baziren Aitor Gorosabelek eta Xabi Bastidak Su ta Garren bi kantu abestu zituzten.

"Erakundeendako ikusezinak gara"

MARIFRAN AIZPURU ETA IRANTZU BENITO SENIDEAK



Marifran Aizpurrendako eta Irantzu Benitorendako iraileko lehen egunak urtero dira gogorak. Baina aurten, Asier Herizen amak eta istripu berean larriki zauritu zen Iñaki Saezen emazteak are gogorrago sentitu dituzte egunok, besteak beste, urteurren bereziaren bueltan egindako oroimen ekitaldiengatik. Baita ere, heriotza haietatik 20 urte pasatu arren, oraindik erakundeen aurrean ikusezin sentitzen direlako.

Zelan bizi izan dituzue urteurreneko oroimen ekitaldiak?

Oso eskertuta. Eskertzekoa da jendea horrela gogoratzea, horrenbeste urte pasatuta ere, oraindik bizirik baleude moduan.

Ikusezin sentitzen zarete?

Gu ikusezinak gara. Gure ingurukoek ikusten gaituzte, baina erakundeen aurrean egongo ez bagina moduan da. Politika mailan, goian, ez dute inolako pausorik eman. Udal mailan-eta ikusten dira aurrerapausoak. Aurten, adibidez, Soraluzen, Etixerat elkartek aurkeztutako mozioa aho batez onartu zuten udal ordezkari politiko guztiek (EAJk, PSE-EEK eta EH Bilduk). Haren bitartez, aitortu zuten urruntze politikak sufrimendua eragiten duela. Baina, oro har, bestelako erakundeen aldetik ez da pausorik eman.

Zein pauso eman beharko lirateke, zuen ustez?

Gu ere gatazka honen biktima bagarela onartzea. Sufrimendua toki guztietan egon da, baina gurea ez da inon agertu, gure ingurukoaren artean ez bada. Orain dela bizpahiru urte, Egriari Zor Fundazioaren bitartez, aukera eman ziguten gure egonezina erakusteko eta gure iritzia emateko, gure egoeraren testigantza. Zer ondorio ekarri digun bakoitzari. Eta gu eta bidean geratu direnak egoera honen biktima moduan azaltzea.

Zuentzat zein izango litzateke aitortza aproposa?

Guretzat aitortza izango litzateke euskal preso guztiak hona ekartzea. Errekonozimendurik handiena izango litzateke dispersioarekin amaitzea eta euskal preso guztiak Euskal Herrian egotea. Gure seme-alabek hori lortu nahian eman zuten bizia, errepedean.



EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA

Barruan daramazu kirol zaletasuna, onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa. Eta barruan daramazu euskara ere, kirola barrutik bizitzeko.

Euskadi, auzolana



UMEENDAKO TAILERRAK 2021-2022 URRTIK MAIATZERA

ZIRKOA

Adina: 5-12 urte, HH5-LH6
Eguna: Asteartea, 17:00-18:15 (5-7 urte) eta 18:15-19:00 (8-12 urte)
Kuota: Hilean 20 euro

ROBOTIKA

Adina: 8-12 urte, LH3-LH6
Eguna: Asteazkena, 17:00-18:15
Kuota: Hilean 25 euro

BERTSOLARITZA

Adina: 10-12 urte, LH5-LH6
Eguna: Irakaslearekin zehaztuko da
Kuota: Hilean 10 euro

XAKEA

Adina: 8-12 urte, LH3-LH6
Eguna: Astelehena, 17:00-18:00
Kuota: Hilean 20 euro

ARTE PLASTIKOAK (PINTURA, ESKULTURA...)


Adina: 4-7 urte, HH4-LH2
Eguna: Astelehen, asteazken edo ostiralak, 17:00-18:15
Kuota: Hilean 20 euro

IZEN-EMATEA: Plazak agortu arte
Online: www.soraluze.eus
Presentziala: Udaleko Harrera Bulegoa





Arrate Elizburu, olio esentzialak eskutan.



Olio esentzialen hasierako kit-a.

Arrate Young Living

Arrate Elizburu soraluzetarrak olio esentzialak eta toxikorik gabeko produktuak saltzen ditu: olio esentzialak, txanpuak, makillajea, elikagai osagarriak, jaboia... Aromaterapia familia guztiarentzat.

Young Living olio esentzialak erabiltzen eta saltzen hasi da Arrate. Young Living 25 urte baino gehiago dituen enpresa da, liderra bere sektorean. Arrateren esanetan, "harrigarria da eguneroko arazoak (buruko mina, kolpeak, muskulu gogortuak, kasketak...) konpondu ahal izatea olio esentzialen moduko produktu naturalekin".

Zer dira olio esentzialak?

Lurrunezko destilazioaren bitartez landareetatik ateratako esentziak dira, oso kontzentratuak, eta gure gorputzean nahiz inguruan eragiten dute, bai fisikoki, bai mentalki baita emozionalki ere. Modu askotara erabil daitezke:

arnastuta, masajeetan, kosmetikoetan, elikagaietan, difusorean... eta konpondu nahi duzun arazoaren araberako dosiak daude.

Zerekin hastea gomendatzen duzu?

Nik gomendatzen dut hasierako kit-arekin hastea. Izan ere, kit horrek 12 olio esentzial dakartza, ningxia red edari antioxidatzailearen 2 monodosi, difusore bat, laginentzako potetxoak eta beste osagarri ugari. Gainera, horiek denak behar bezala erabiltzen ikasteko eta momentu guztietan lagundua sentitzeko, astero 3 bilera eskaintzen ditugu Zoom bidez.

Zeni interesa dakioke?

Bere ongizatea eta ingurukoena zaindu nahi duen edozeini. Interesgarria da toxikorik gabe bizi nahi duen edozein pertsonarentzat.

Nork erabil ditzake olio esentzialak?

Familiako edozein kidek erabil ditzake olio esentzialak. Haurrek, helduek eta baita animaliek ere. Hori bai, komeni da diluzio-taula bati jarraitzea.

Zein hizkuntzatan egiten duzu lan?

Nik euskaraz egiten dut lan eta informazio gidak euskaraz sortzen ditut: hasierako kit-a erabiltzen ikastekoa, toxikorik gabe garbitzearena, 'ikastetxera edota lanera itzulera olio esentzialekin' ebook-ak...

Informazio gehiago eta eskaerak


Idatzi bi helbide hauek batera: esencial.elizmen@gmail.com edo [@esencial.elizmen](https://www.instagram.com/esencial.elizmen) (Instagram).

OLIO ESENTZIALEK GURE GORPUTZEAN NAHIZ INGURUAN ERAGITEN DUTE: FISIKOKI, MENTALKI...

Txakolina

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO

Zazpi urte ziren Boskoitxin azkenengoz txakolina egin zutela, baina, aurren, senide eta lagun koadrila batu eta Jesusen gidaritzapean, 150 litroko altzairuzko barrika bete dute berriz. Lehenik, baserri inguruan barreiatuta dauden mahats-parra eta mahastietako kordak batu dituzte, 300 kilo inguru. Gero, mahats kordak hankekin zapaldu eta aleak ondo xehetu ostean, prentsatu egin dituzte tolare txiki batean, eta bertatik atera den zukua altzairuzko barrika batera bota dute. Barrika zabalik laga dute, egun batzuetan, zikina bota dezan. Gero, itxi egingo dute eta, okerrik ezean, martxoan boteilaratzeko moduan izango da Boskoitxiko txakolin berria, auzolanean eta ilusioz egina. Seguru txakolin horrek txinparta berezia izango duela.






Sarea

Arrain honek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki, sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina nondik hasiko da? Zein zirkuitutatik joan beharko du? Lau dituzu aukeran.



- 1 →
- 2 →
- 3 →
- 4 →



MARIPURTZIL!
POZIK ITZULI
ZARA ESKOLARA,
EZTA?



Sudokua

Bai, haserre dago, baina lasai, berehala ahaztuko zaito. Bete ezazu sudokua, ESKOLA hitza osatzen duten hizkien bidez (E, S, K, O, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zaku Lasterketa

Lehen inuditik bigarrenera bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina forte horretan gauza asko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da eta elementu berri bat ere agertu da. Ikusten al dituzu?



Mezu gordeak

Erabili marrazkitxoan alfabetoa eta pertsonaia bakoitzak zer dioten jakingo duzu. Esaldi horietako bat esatera zahar bat da, zein da?

1 _____

2 _____

3 _____

4 _____

ALFABETOA													
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	+	☺

Hamabostekoa

Bai ederrak garai bateko hilarriak. Irudi honetan, ezkerre eta eskuina ez dira erabat simetrikoak. Bila itzazu bien artean dauden aldeak. Hamabost dira guztira.



GUTUNAK

'Lurak goxo har zaitzala'

PLAZENTZIA KANTUAN

Kaixo, Bittor!

Azken urteetan, astero bi aldiz elkartzen ginen. Lehenengoan plazan pentsioengatik borrokatzeko eta bigarrean, kantuan egiteko, Plazentzia Kantuan taldean. Borrokan atsedean bat merezi duzu, borroka gogorrena azkena izan duzu eta irabazi ezina, baina jarraitu kantuan musika bizia da-eta. Jakin ezazu, frontoian agurtu ondoren, lehenengo tragoa zuregaitik topa egiteko izan zela. Plazer bat izan da zurekin halako momentuak pasatzea. Eskerrik asko denagatik. Agur Bittor.

Lurak goxo har zaitzala.

Emakumeen murala

SORORAK TALDE FEMINISTA

Lianekin batera kiroldegiko pasealekuan egin dugun

muralaren helburu nagusienetako bat izan da emakumeek egin izan dituzten lanak, aitortzarik batere izan ez dutenak, ikusgarri egitea. Gure ustez, muralaren irudia oso adierazgarria eta indartsua da, emakumeak elkarrekin lanean ageri direlako, haien arteko sareak ehuntzen eta ahizpatasuna harilkatzen. Muralaren bidez horiek guztiak plazaratu nahi izan ditugu, ikusleak gai horiei buruz hausnar dezan.

Errigorako saskiak laster

PIL-PILEAN, IRATXO ETA ARRANO

Urriaren 23an hasiko da Errigoraren udazkeneko kanpaina eta egun horretatik aurrera azaroaren 11ra bitartean eskatu ahalko dira Nafarroa hegoaldeko produktuekin osatutako saskiak. Besteak beste: ardoa,

zainzuriak, tomatea, olioia, ozipina, pikillo piperrak, lentejak eta beste hainbat kalitatezko produktu. Oso egokiak dira etxerako eta baita gabonetako aginaldo moduan oparitzeko ere, bai pertsonalki edo bai erakunde edo enpresetan. Errigorak saskien balioaren %75a ekoizle txikiei bideratuko die eta %25a, berriz, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzako eragileei. Proiektu ederra da eta dagoeneko 40ren bat soraluzetarrek parte hartzen dugu urtero. Aurten, animatuko zara zeu ere?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Zein jarduera edo ospakizun igarri duzu faltan azken bi urteotan?

Pandemiaren ondorioz, ekitaldi asko bertan behera geratu dira.



CRIS JACAS

"Jendearekin egon ahal izatea. Dena den, gure kasuan, dena batera tokatu zaigu. Momentu txarra izan da, baina gauza onak ere izan ditugu. Umeekin eta ez dakit gauza gehiago egingo genukeen. Oraindik ez dugu lehengo bizitza soziala egiten, umeengatik, batik bat".



ELEUTERIA ORDAX

"Honek bizitza asko kendu digu, batez ere, apur bat delikatu gaudenoi. Oso negu gogorra izan da. Tabernetara joan naiz, etxekoekin bakarrik, baina pixka bat bai. Nahiko nuke ahalik eta lasterren bukatzea hau, maskara kentzea, honek ito egiten gaitu.



VALE BRAVO

"Itxaropenara joatea, bingora... Dena. Ederra urtea! Paseoa handik eta hemendik, ez dugu besterik egin. Tabernetara ere ez naiz joan. Orain, udan hasi da aldatzen pixka bat, lasaitu egin gara apur bat eta pixka bat gehiago ibili gara, baina... Ea hau behingoz bukatzen den!"



AITOR OREGI

"Bizitza soziala, jaiak, jendea... orokorrean dena, zaku berean dago dena. Hori bai, baserrian bizi garenok etxetik irteteko beste askatasun bat izan dugu. Hala ere, oraindik urrun ikusten dut amaiera. Nik uste dut horri buruz inork ezin dugula ezer kalkulatu.

PUNTUA



ALBERTO INURRIETA

Nora begira, hura ageri da

Nork edo zerk agintzen du gure bizitzan zer bihurtuko den edo zaigun esanguratsua? Inork sinisten al du guk erabakitzen dugula gertatzen zaiguna? Non dago, beraz, gizakiarentzat askatasuna?

Aukerako bizitzak garatzen ditugu edo datorrenari erantzutea baino ez zaigu gelditzen? Non hasten da guretzat aukera edota noraino gaude jaio orduko bizibide bat egitera bideratuta, noraino behartuta?

Askatasunaren ilusioaz eraikitzen ditugu planak bizimodu onak izateko, gure buruarekin gustora egoteko, baina ilusioa gauzatzen denean urtu egiten da berehala, ez da iraunkorra, ez da jasagarria. Askatasunak bere baitan darama frustrazioa. Heldutasuna, hain zuzen, psikologiaren ikuspegitik frustrazioaren aurrean garatzen dugun tolerantzia maila bezala ulertzen da.

Bizitzan beti ditugu aukerak, baina aukera hori gure barruan erabakitzen da. Ahalegintzen gara etengabe mundua menperatuz gure arrakasta pertsonala eraikitzen, baina heldu arte ez gara jabetzen lor dezakegun arrakasta bizitzarekin armonizatzean dagoela. Nola ikasi datorkiguna onartzen; onartze horrek irekitzen dizkigu gozamenerako ateak.

FAST FOOD-AREN INBASIO IRAUNKORRA AURKITZEN DUZUNEKOA

© 2020

"Adimen Artifiziala bizkorrago doa demokrazia ahulenetan"

PEDRO LARRAÑAGA MUGIKA KATEDRADUNA ADIMEN ARTIFIZIALEAN ETA KONPUTAZIO ZIENTZIAN

Goi mailako aditua eta ikerlaria da Pedro Larrañaga Mugika. Matematikan masterra du -"aitak matematikaren kontua oso sartuta zuen"- eta Informatikan Doktorea da. Adimen Artifiziala eta Neurozientzia lantzen dihardu, batik bat. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Adimen Artifizialaren Departamentuko katedraduna da. Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Fernan Oregi eta Pedro Larrañaga**.

Irailaren hasieran, Pedro Larrañaga Mugika (Soraluze, 1958) Udal Liburutegira bertaratu zen, Alberto Arizagaren eskutik. Larrañagak bi liburu dohaintzan eman zizkion herriko liburutegiari: *Industrial Applications of Machine Learning* eta *Data-Driven Computational Neuroscience. Machine Learning and Statistical Models*. Akademikoki zein ikerketa arloan curriculum benetan ikusgarria dauka soraluzetarrak. Liburutegian zegoela, tertulia interesgarria izan zen adituaren eta ekimenera bertaratu zirenen artean. Han berba egindakoari bestelako galdera batzuk gehitu eta honako elkarrizketa da emaitza:

Aspaldi Soraluzera etortzeke?

Oso gutxitan joaten naiz. Uda honetan egon naiz, *Poto* hil zela-eta. Azken bi urteotan, pandemiarekin hori izan da azken eguna. Bestela kintoen bazkariren bat... Han ez daukat familiarik...

Baina bai lagunak, ezta?

Banderatrapo zen gure futbol taldearen izena. Behin Soraluzeko txapelketa irabazi genuen eta oraindik horrekin gaude. Mikel Iñurrieta zen gure

aurrelari-erdilaria. Afarietan elkartzen garenean oraindik hori izaten dugu berbetagai.

Azken bisitetan, zelan ikusi duzu herria?

Ezin naiz oso objektiboa izan. Bihotzak irabazten du. Adibidez, pena handia ematen dit SAPA moduko eraikin bat itxita ikusteak. Nik oroitzapen horiek ditut: 12:00etako, 13:30eko eta 18:00etako sirenak, etxe-beheetako lantegi txiki ugariak, sokamuturra herriko jaietan, Dantzari diskoteka... Soraluzeren egunerokoa ez dut ezagutzen.

Bi liburu eman dizkiozu dohaintzan liburutegiari. Zergatik?

Ilusioa egiten dit. Gaztaroan ordu asko pasatu nituen hemen, bueno, orduan Kontzejupean zegoen liburutegia. Liburutegia oso zerbitzu garrantzitsua da, are gehiago gaur egun, irakurketa azkarra eta sakontasun bakoa gailentzen ari den sasoi honetan.

Batetik, *Industrial Applications of Machine Learning* liburua ekarri duzu. Elgoibarko enpresa baten eskaeratik dator, ezta?

2015ean UPMn (Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan) gai horretan lanean ari ginela, Elgoibarko Etxe-Tar enpresako ikerketa-burua etorri zen.



Pedro Larrañaga Mugika liburutegian, berak emandako bi liburuak aurrean ditueta. FERNAN OREGI



Pedro Larrañaga liburua ematen Amaia Aldai liburuazainari.



Banderatrapo futbol taldea, 1980. urte inguruan. P. LARRAÑAGA

Garai hartan gu giza garuna ikertzen ari ginen. Etxe-Tarkoak (Inzu Taldea) antzeko metodoak aplikatzera bultzatu gintuen beraien makinaren portaera ulertzeko. Sentsorizatuta eta digitalizatuta dagoen makina baten bitartez detekta daiteke bere konportamendua normala den edo ez. Hori gizakiak ezin du egin.

Jar zenezake adibide bat?

Adibidez, makina baten jabe bati zera esan ahal izatea: Makina horri geratzen zaion biziraupena lau ordukoa da eta ez baduzu beharrezko aldaketa egiten, faktoria edo planta guztia geratu egingo zaizu.

Ekarri duzun bigarren liburua, berriz, Data Driven Computational Neuroscience. Machine Learning and Statistical Models zeri buruzkoa da?

Interneurona tipoak aztertzen dira. Rafa Yuste mediku madrildarrarekin batera dihardugu horretan lanean. Bitxikeria moduan, Yustek bidali zidan bere lehen artikuluan euskal mitologiatik jasotako honako esatera zuen: *Izena duen guztia omen da*. Euskarazko esaldi horrekin esan nahi zuen dauden interneurona tipoak bataiatu egin behar direla, bestela ez baitakigu zeri buruz ari garan berbetan. Horretan dihardugu. Allen Instituterekin ere ari gara gai bera lantzen.

Zer da Allen Institute?

Paul G. Allen Bill Gates-en laguna zen 70eko hamarkadan, familiako garajeetan lan egiten zuten sasoikoa. Bill Gatesek bere bidea hartu zuenean, Allenek erabaki zuen mezenazgora dedikatzea. Hil egina da orain dela gutxi, baina Allen Institutua sortu zuen eta haiekin harremana dugu.

Bestalde, mediku madrildar bat euskara ikasten?

Yustek zenbait urte daramatza euskara ikasten. Columbiako Unibertsitateko (New York) irakaslea da, baina urtean hiru hilabetez Euskadira etortzen da, Ikerbasqueko ikertzailea delako.

Adimen Artifizialean (AA) aditu zara; hori ia esparru guztietan aplikatzen da gaur egun, ala?

Adimen Artifiziala zerbait transbertsala bilakatu da.

Aldiz, batzuetan beldur handia eragiten du...

Nik uste dut beldurrak datozela ikusi ditugun pelikulengatik, egiten diren sinplifikazioetatik... errealitatekin urrun daude horiek. Hori bai, egia da zerbait indartsua denean hori kontrolatu egin behar dela zela edo hala. 40ko hamarkadan Einsteinek eta Szilárd-ek deklarazio moduko bat egin zuten, energia nuklearraren erabilera egokiari buruz adostasuna lortzera bideratuta. Orain, antzeko zerbait gertatzen ari da AAekin, hura ere arautzeko. Ameriketako Estatu Batuak hasita dago, FDA izeneko erakunde bat dago han. Adibidez, hango ospitale batean AAean oinarritutako zerbait erabiltzen badute, FDAk auditatu egiten du guztia, ikusteko egindako erabilera zuzena den ala ez. Txinan, berriz, gobernuak hango bizilagunengan ezartzen duen kontrola izugarrikoa da, batik bat, aurpegiaren ezagutzarekin. Horren bitartez, erabat kontrolatuta daude, kalean, bizitza pribatuan... Oro har, demokrazia ahulena duten herrialdeetan doa bizkorrago AA. Halakoetan, inork ez du zalantzarik eta ez dute beste ezer planteatzen. European, berriz, tikismikisagoak dira. Bestalde, aurtengo uztailean, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du Basque Artificial Intelligence Centera sortu duela, Gasteizen.



Pedro Larrañaga Don Jesus Arribas irakaslearekin eta ikaskideekin. "Oso irakasle ona zen, berak sartu zidan ezagutzarekiko gogoa". P.L.

KONPUTAZIO ZIENTZIETAN ETA ADIMEN ARTIFIZIALEAN KATEDRADUNA DA UPM-N

**"NIK USTE DUT BELDURRAK
DATOZELA PELIKULENGATIK, EGITEN
DIREN SINPLIFIKAZIOETATIK..."**

**"JAUZI HANDIA DA ETENGABEKO
DATUAK IRENSTEKO GAI IZANGO
DIREN SISTEMAK SORTZEA"**

Super-pertsonaren, humanoideen sorrerak ere ematen du hizpidea...

Hasieratik esaten da bi AA mota daudela: ahula eta indartsua. Adimen Artifizial ahula da jardun espezifiko bat egiten duten sistema inteligenteak garatzea: xakean jokatu, golfean, gidatu... Gauza bakarra. Baina pertsona batek gauza asko egin ditzake batera. Hori litzateke AA indartsua. Nik uste dut azken hori oraindik gaur egun egin daitekeenetik urrun samar dagoela. Dena den, bestelako alorretan moduan, garrantzitsuena heziketa da, jendea heztea. Adibidez, ume txinatarrek, 5-6 urtetik aurrera AARI buruzko 44 bat liburu lantzen dituzte unibertsitatera iritsi aurretik. Helburua da kalean, jende guztiak jakitea zer den AA. Baina Europan herritarrik gehienak ez daude horretan formatuta. Erreparo handia dago. Nik, adibidez, orain dela ia 30 urte proposatu nuen AARI buruzko ikasgaia EHU-n; nik ikasgai hori lantzen nuen, baina ez zen izen hori onartu, Konputazio Zientziarako Metodo Matematikoak izena ipini zioten.

Gaur egun, zertan ari da garatzen Adimen Artifiziala?

Gaur egun kirolean, industrian, osasunean... ematen ari den jauzi handia da etengabe sortzen ari diren datuak irensteko gai izango diren sistemak sortzea. Adibidez, sei kamerekin



Pedro Larrañaga eta Concha Bielza New Delhin, saria jasotzen.



Gipuzkoako boleibol selekzioarekin, 17 urterekin.

grabatzen diren futbol partida batetik jasotzen den informazio guztiari erabilera emateko. Hori lortzea erronka metodologiko handia da. Hori interesatzen zaigu guri: zer garatu behar den matematikoki, konputazionalki, datu horietatik abiatuta, denbora errealean erantzunak emateko gai izango diren sistemak eraikitzeko.

Zeuk, zertan diharduzu orain?

Mikrobioma ikertzen ari gara. Heste-igarotzea. Uste dugu interes handiko gaia dela. Jende askok defendatzen du urdaila eta burmuina oso lotuta daudela, eta, zela edo hala urdailean eraginez, prozesu neurodegeneratiboen eta antzekoen bilakaera alda daitekeela. Baita Althzheimerra ere.

Beti entzuten da ikerketarako finantzazio gutxi bideratzen dutela agintariek...

Administrazioa modu jakobinoan dago antolatuta. Demostratu behar da errugabea zarela. Ikerlarien kasuan, Ministeriotik datorren subentzio bat lortzen dugunean, denbora mordera galtzen dugu demostratzeko egin ditugun gastu guztiak zertan egin ditugun. Ministerioak auditore batzuk ditu kontratatuta eta hasieran denari ezetz esaten diote. Gainera, orain, Europatik datozen laguntzekin, hau zoramena da, ze bat-batean, mundu guztiak lantzen du Adimen Artifiziala.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan zinen, orain Madrilgo Unibertsitate Politeknikokoa (UPM) zara; zergatik joan zinen?

EHUtik UPMra joan nintzen han burmuinaren ikerketari buruzko Hezkuntza Ministerioko proiektu bat zegoelako: Cajal Blue Brain. 5 urte

geroago 2013an sortu ziren mundu mailan bestelako proiektu batzuk, Obamaren Brain Initiative zein Human Brain Project. Azken hori goi mailako proiektua da, flagship (bandera) esaten diote, 1.000 milioi euroko eta 10 urteko iraupena duen proiektua da. Bi urte gehiagoz segituko dugu hor parte hartzen. Proiektu horrek hiru adar ditu: neurozientzia, konputazioa eta medikuntza. Gue kasuan, neuroanatomia lantzen ari gara. Neuronen arteko komunikazioan parte hartzen duten arantzak, zehazki. Izan ere, segun eta zenbat arantza dauden eta non dauden kokatuta, zenbait gaixotasun neurodegeneratibo pronostika ditzakegu. Adibidez, Althzheimerra eta Parkinsona dutenek arantza horietako oso gutxi dituzte.

Orain neurozientzian diharduzu, baina 2013an Espainiako Informatikako Sari Nazionala eman zizuten. Hori zelan lortzen da?

Epaimahai batek erabakitzen du. Batek egindako ibilbidearen arabera. Suposatzen dut nire kasuan hainbat gauza hartuko zituztela kontuan. Adibidez, EHUUn, zerotik abiatuta, aurrekaririk ez zuten lan berritzaileak egin nituen. Bestalde, konputaziorako nire hurbilketa matematikarekin oso lotuta egon da. Nire proposamenak fundamentu teorikoarekin egindakoak ziren. Eta hiru urtez izan nintzen Espainiako Ikerketa Proiektuen Plan Nazionalaren arduradun. Oro har, komunitateari egiten diozun ekarpena kontuan hartzen dute. Eta izan behar duzu curriculum aproposa ikerketan. Ikerketak balio du gehien, publikazioak... Lan eta lan.



Pedro Larrañaga elizpean, irail hasieran.

SARI GARRANTZITSUAK EMAN DIZKIOTE, TARTEAN, INFORMATIKAKO ESPAINIAKO SARI NAZIONALA

"EHU-TIK UPM-RA JOAN NINTZEN HAN BURMUINAREN IKERKETARI BURUZKO PROIEKTU BAT ZEGOELAKO"

"18 URTEREKIN ESPAINIAKO BOLEIBOL JOKALARI JUBENIL ONENA IZENDATU NINDUTEN"

Beste sari ugari ere badituzu, zein duzu kuttunen?

Denek daukate euren erakargarritasuna eta berezitasuna. Agian garrantzitsuena da Academia Europaea-ko kide hautatua izatea. Jende asko gaude, 3.000 pertsona, Europako toki guztietakoak eta Asiakoak, AEBtakoak... Baina horien artean 20 Nobel Saridun daude. Maila nahiko altua da. Lorpen handiena hori izan da. Bestalde, Adimen Artifizialeko Espainiako Elkarteak eman zidan saria ere oso polita izan zen, lagunak diren edo harreman estua dudan jendeak eman zidalako. Harrigarriena, berriz, orain bi urte Indian, Nueva Delhin eman zidatena da. Erabat ezustekoa izan zen. Nire izena zelan lortu zuten ere ez dakit. Machine Learning-en zientifikoki egindako aurrerapenarengatik eman zidaten saria. Australiako, Txinako eta Indiako jendea zegoen. Politia izan zen, aprobetxatu nuen han emaztearekin pare bat aste pasatzeko.

Kirolean ere bazara saridun...

Kirolari asko daude zientifikoki oso gutxi dakitenak eta alderantziz, zientifiko asko daude oso kirol gutxi praktikatzen dutenak. Niri dagokidanez, biak egon dira beti lotuta. Bietan dago aurrera egin nahia, hobetzeko grina.

Boleibolean nabarmendu zinen zeu...

Eibarko Unibertsitate Laboralean hasi nintzen. Goio Trebiño, Iñaki Sodupe, Jose Luis Arizaga eta laurok joan ginen Unira. Han interno egon ginen. Atletismoan hasi nintzen, baina boleibola gustatzen zitzaidan gehien. Talde nahiko ona antolatu zuten eta 16-17 urterekin Madrilera joan ginen eskolarteko txapelketa batera. Gero Valladolidera joan nintzen ikastera (Gipuzkoatik hara joaten zen sasoi hartan) eta han ere segitu nuen. 18 urterekin izendatu ninduten Espainiako Jokalari Jubenil Nazional onena. European ere lehiatu nintzen eta mundu mailako txapelketara joatekoak ginen, Brasilerera. Baina, kirolari horrenbeste emanda, urte hartan, ekainean ez nuen ezer gainditu. Beka bat nuen eta ez nuen galdu nahi. Ez nintzen munduko txapelketara joan eta irailean, lautik hiru gainditu nituen. Gero, Donostian nengoela, Fortuna taldean sartu eta Euskadiko Selektzioarekin hasi nintzen, 2-3 urtez egon nintzen kapitain. Lehen alaba jai zenean erabaki nuen dena lagatzea.

Ingelez bizi arren elkarrizketa euskaraz egin dugu.

Mantentzen ditut lagun batzuk Donostian, nirekin tesia egin duten hainbat euskaldunak dira eta euskaraz berba egiten dut; emaztea zarauztarra daukat, ez pentsa.



Iosu Unanueri eta Ibai Kortabarriari jantzi zizkieten txapelak.

Kortabarria eta Unanue txapeldun

Irailaren 11n jokatu zuten finala San Andresen eta Kortabarriak eta Unanuek jantzi zuten txapela.

Asier eta Inakiren omenezko txapelketaren 20. edizioa izan da aurtengoa. Ekainean abiatu zen hamabi bikoterekin eta irailaren 11n amaitu zen, San Andresko frontoian 3. eta 4. postuen eta finaleko partiduak jokatur. Lehen partiduan

Gorka Ojeak eta Hodei Tajuelok 22 eta 20 irabazi zieten Jokin Arrillagari eta Beñat Catalani, eta finalean, berriz, justu justuan bada ere, Ibai Kortabarria eta Iosu Unanue nagusitu zitzaizkien 22 eta 21 Ander Oñate eta Ibai Tajuelori.



Txapelketan parte hartu duten pilotari eta antolatzaileak.

Frontenis txapelketak

Soraluze Mugituz-ek jakinarazi duenez, urriaren 2an eta 3an III. Frontenis Txapelketa mistoa jokatuko dute eta horrekin batera, aurten lehen aldiz, Emakumezkoen I. Txapelketa ere jokatuko dute. Izen-ematea irailaren 28ra arte dago zabalik, 943 75 24 66 telefonoan edo kirola@soraluze.eus helbidera idatzita. Bikoteko 12 euro ordaindu behar dira.

Munduko txapelketan

Soraluzeko Pilota Elkarteko Ander Murua eta Manex Balerdi Munduko Euskal Pilota Txapelketa jokatzeko aukeratu ditu Espainiako Selekzioak. Txapelketa urriaren 17tik 23ra jokatuko dute Valladoliden eta Segovian. Aurretik, Muruak eta Balerdik irabazia dute Europako txapeldun titulua.

Lehiaketa guztiak baimenduta

Irailako LABI batzordeak kirol lehiaketa guztiak antolatzeko baimena eman dute berriz. Hortaz, hemendik aurrera, federatutako kirol lehiaketez gain, federatu gabekoak ere jokatzeko aukera izango da. Gurean, eskola kirolari eragingo dio: futbolari, errugbiari, hockeyari eta pilotari.

Beka-sistema Musika Eskolan

Errenta baxuko familietako haurrek Soraluzeko Musika Eskolan ikasteko bekak ateratzeko asmoa dute

Azken hilabeteotan, Soraluzeko Musika Eskolan beka bidez ikasteko aukera eskaintzeko proiektua lantzen ari dira. Uda aurretik, Musika eskolako Zuzendaritza Batzordeko talde motorrak egitasmoa aurkeztu zion Soraluzeko Udalari.

Ahalik eta lasterren

Orain, azken asteotan, proiektuaren nondik norakoak zehazten eta adosten ari dira: beka kopurua, aurrekontua, finantzazioa eta beste. Asmoa

da ahalik eta lasterren eskaini ahal izatea bekak herritarrei, onuradun izango diren ikasleak aurtengo ikasturtean bertan has daitezen musika eskolan.

Aspaldiko nahia

Beka sistema ezarri ahal izatea Soraluzeko Musika Eskolaren Plan Estrategikoan dago jasota. Aspaldiko nahia da errenta baxuko familietako haurrei aukera hori eskaini ahal izatea herriko musika eskolan.

Harri-jasotzaileak eta harriak ikusgai

Juan Antonio Palacios argazkilari eibartarrak *Harria* izenburua duen erakusketa ipiniko du kiroldegiko erakusketa aretoan, Kontrargi Argazki Kolektiboaren eskutik. Urriaren 13an zabaldu eta hilaren amaieran itxiko dute. Zuri-beltzean egindako argazkiz osatutako erakusketa da, batzuk formatu handikoak; guztiak ere harri-jasotzaileen eta harriak duen aparteko indarrean inspiratuta.

Hain justu, izenburu bera duen argazki-liburuan azaltzen diren 100 argazkietako batzuk erakutsiko ditu Eibarko Klub Deportiboko argazkilariak Soraluzen. Azken bi urteotan egindako lanaren emaitza da.

Antzerki garaia

EZ DOK ERO Tartean teatroa



EGUNA
Urriak 15, ostirala
15 de octubre, viernes

ORDUA
20:00

EGILEA
Patxo Telleria

ZUZENDARITZA
Jokin Oregi

ANTZEZLEAK
Patxo Telleria
Mikel Martinez

HIZKUNTZA
Euskara

SARRERA
10 € *

KONPROMISOA Txalo produkzioak



EGUNA
Urriak 30, larunbata
30 de octubre, sábado

ORDUA
19:00

EGILEA
Philippe Claudel

ZUZENDARITZA
Begoña Bilbao

ANTZEZLEAK
Joseba Apaolaza
Ramon Agirre
Zuhaitz Gurrutxaga

HIZKUNTZA
Euskara

SARRERA
10 € *



SORALUZEKO UDALA
Kultura Batzardea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Artea, Turismo, Espazioa eta Kirol Departamentua



ORAIN KULTURA

* Bi antzezlaneanarako sarrerak iratxon erosi ahal izango dira aurrez

Arruabarrena intimoena

OREKA ART GALERIAKO ERAKUSKETA HILAREN AMAIERARA ARTE IKUS DAITEKE

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **UBANE MADERA ZANGITU**


Dialogos Intimos du izena Juan Manuel Arruabarrena (Soraluze, 1956) artistak Oreka Art galerian duen erakusketak. Olioan egindako margolanak dira, artistaren lehenagoko etapa koloristatik aldentutako obrak. "Atmosferak, behe-lainoak..." irudikatzen dituzte, "kolore grisekin, berde ukituekin, kolore suabeekin". Margolan "serenoagoak" direla esplikatu du Arruabarrenak, "bakarrik" egindakoak: "Bakarrik eta isiltasunean. Lehen musika ipintzen nuen, orain ez eta inguruan jendea badut, ez dut nire burua zentratuta ikusten. Horregatik erakusketaren izenburua *Dialogos Intimos* da".

Irailaren 29ra arte izango da erakusketa bisitatzeko aukera, artistaren beraren edo Oreka Art galeriako jabe Alberto Ramirezen eskutik, astelehenetik barikura, 19:00etatik 20:00etara.

Ehunka lan

Paretetako olioekin batera, Arruabarrenak bestelako lan batzuk ere eraman ditu erakusketara, "kartulinetan egindako laminak, adibidez, onarpen handia izaten ari dira", kontatu du.

Dena den, artista soraluzetarraren lanen mostra txiki bat besterik ez da Oreka Art galeriako. Ehunka obra



Arruabarrena margolan baten ondoan.

egin ditu, berak ere ez daki zenbat. Batzuk borrotatu ere egin izan ditu, gero haien gainean berriak margotzeko: "Artista baten desgrazia da sekula ez duela lortuko barruan duena bete-betea plasmatea. Obra gutxi batzuetan gustura geratzen zara, baina bestetan... Adibidez, hemen batere gustatzen ez zaizkidan gauzak ikusten ditut, baina bere momentuan gustuko nituen".

90EKO HAMARKADAN MARGOTZEN HASI ZENETIK, EHUNKA LAN EGIN DITU ARTISTA SORALUZETARRAK

Zesta puntan profesional

Anaia Pablarekin batera pintura dekoratiboaren lanbidean zebilela egin zituen Juan Manuel Arruabarrenak lehen margolanak. "Pintura dekoratiboak gauza bereziak egitea eskatzen zidan batzuetan eta hor ibiltzen nintzen, probatzen, esperimentatzen, margotzen... Behin, Josetxo Lemy dekoradore eta lagunak esan zidan: *hori sinatu egin behar duzu!* Hortik aurrera hasi nintzen gauza garrantzitsuagoak egiten".

Ordurako, hori bai, bazuen oinarri artistikoa. 70eko hamarkadan, marrazkiak, grabatuak, erliebeak eta beste eginak zituen, baina etenaldi bat izan zuen 1976tik 1981era: "Pilotari izan nintzeneko sasoia. Profesioaletan sei partida jokatu nituen, zesta puntan. Lau urtean ibil nintzen. Palma de Mallorcan hasi eta Gasteizen jokatu nuen profesional modura, Olabe frontoian. Laga egin nuen, berandu hasi nintzen horretan eta gainera, oso urdui ipintzen nintzen. Gero anaiarekin lanean hasi nintzen eta gero margotzen, 90eko hamarkada zen".

Denbora libreko ordu asko

Harrezkero, Arruabarrenak denbora libreko ordu asko dedikatu dizkio arteari. Lehen, gaeuz edo asteburuetan margotzen zuen. Orain, erretiratuta dagoela, esperantza

du denbora gehiago dedikatu ahalko diola. Hala ere, lehen moduan, orain ere, nahi baino denbora gutxiago du "askatasuna" ematen dion zaletasunarendako: "Gehienek moduan, nik ere ezin izan dut artea nahiko nukkeen moduan garatu, ez dut denborarik izan. Egunero jan behar da. Familia ere izan dut. Arteak zentratuta egotea eskatzen du, denbora eskaintzea. Orain denbora gehiago dut, baina uste baino gutxiago, egia esan".

Instagramen eta Facebooken

Arruabarrenaren obra berriak etorri bitartean, hala ere, badago zer aukeratu, gustu guztiendako aukera. Margolari soraluzetarrak "inprobisatu" egiten du, "esperimentatu", teknika eta material ezohikoak elkartzea du gustuko, probatzea, eta, askotan, espero ez zituen emaitzak lortzen ditu, hortik bere obraren aberastasuna. Haren zati handi bat orain sare sozialetan ikus daiteke. Adibidez, 200 lan inguru, Facebooken ditu eta azkenaldian indartsu dabil Instagramen. Hura du orain erakusleiho birtual. "Konfinamenduan hasi nintzen Instagramen. Jende askok ikusten zaitu. Nazioarteko jende askok bisitatzen du nirea, Japonia, Alemania, Italia... Madrilgo arte komisarioen bat, hemengo margolari konsagratu batzuk... Norbere lana erakusteko beste modu bat da".



Arruabarrena Oreka Art galerian dituen hainbat obraren aurrean.



Erliebean egindako egurrezko eskultura.



Zesta-puntalari baten marrazkia.



Laminetako bat.



Arruabarrenaren olio bat, bere estudioan.



Iraileko gertaera esanguratsuak

1996tik, Pil-pilean herri komunikabideak plazentziatarren kronika bizia jaso du milaka argazki, testu eta bideo bitartez. Oraingoan, iraileko gertaeren argazkiak bilatu ditugu artxiboan eta zortzi hauek hautatu. Mobilizazio soziala, hirigintza, eta, batez ere, jai eta kirol ekitaldiak dira nagusi argazkietan. Izan ere, uda ostean, auzoetako hainbat jai eta hainbat kirol jarduera antolatu izan dira herrian.

Argazkiak: **Pil-pileanen artxiboa**. Testua: **Egoitz Unamuno**.

GARRAIO PUBLIKOA (2006)

Duela hamabost urte, 'Garraio publiko gehiago eta hobea' eskatzeko, herritarrek sinadurak batu eta mobilizazio jendetsuak antolatu zituzten herrian. 2006ko irailean, ehunka herritar batu ziren Plaza Berrian egin zen elkarretaratzean. Orduko hartan, Soraluzeke Garraio publikoaren aldeko plataformak 2.972 sinadura aurkeztu zizkion Koldo Azkoitia Aldundiko Garraio Diputatuari. Abendu hartan bertan jarri zen indarrean Debarreneneko garraio publikoaren plana eta Soraluzeke zerbitzua nabarmen hobetu zen. Zoritxarrez, garraio publikoaren arazoa ez zen orduan amaitu.



APARKALEKUAK (2003)

XXI. mendean ere izan zen garai bat Soraluzean aparkatzeko arazorik izan ez zena. Sacia lantegia bota eta orube horretan etxeak egin aurretik aparkatzeko aukera eman zuten hilabeteetan izan zen. Geroztik, herritar asko zain dago SAPAn aparkaleku gehiago noiz egingo.



SORA (2002)

Soraluze Futbol Taldearen 44 urteko historian zehar herritar askok (gehienak gizonezkoak) jokatu dute Ezoziko zelaian. Horietako batzuek, urte mordoak eman dute futbolean, alebinetan hasi eta nagusien mailara arte jokatu. 2002ko argazki honetan ageri dira horietako zenbait beterrano...

PIL-PILEANEN ARTXIBOTIK



SAN MARTZIALGO JAIAK (2003)

Ez dago zalantzarik. Duela hamabost urte, egitarau klasikoa izan zen San Martzialgo jaietako domekan: meza, trikitilariak, herri-kirolak (Alberto Burunza ageri da Zelai harrijasotzaileari laguntzen). Gerora ugaritu dira ekitaldi eta erritu paganoagoak...



SAN ANDRESERA IGOERA (2003)

1954an antolatu zen lehen aldiz *Gran Premio Placencia de las Armas*, gerora Soraluzeke Sari Nagusia deitu zaiona. 1976an, lasterketaren helmuga San Andresera eroan zuten eta 2015era bitartean bertan amaitu zen. Abuztuaren erdialdera korritzen zen, Andramari jaien bezperetan.

FINALISTA EGUNA (2002)

Soraluzen indar handia izan du mendizaletasunak. Garai batean, Sociedad Deportiva entzutetsua izan zen herrian mendi jarduerak antolatu zituen eta, gerora, Mendi taldeak hartu zion erreleboa zeregin horretan. Mendi taldeak heldu eta gaztetxoentzako mendi irteerak eta Finalista Eguna antolatu izan ditu urte askoan. 2007an, berriz, herriko lehen mendi-ibilaldia antolatu zuen: Marraskilo Tour. Sekulako arrakasta izan zuen eta urteetan herriko nahiz kanpoko mendizaleak erakarri izan ditu.



PIL-PILEANEN ARTXIBOTIK



MERZED JAIK (2012)

Ez dago garbi Errekaldeko eta Gipuzkoa Etorbideko auzotarrek noiz antolatu zituzten lehen aldiz jaiak. Pil-pileanen artxiboan 2008koak dira lehen argazkiak baina... Tira, garbi dagoena da jaiok hasieratik izan direla herrikoiak eta parte hartzaileak eta hain zuen horregatik sortu izan dela jai-giro berezia bertan. Zer ez dute antolatu Merzed jaietan: erraldoiak, su artifizialak, lehiaketa eta dastaketa gastronomikoak, karta eta toka txapelketak, zezentxoak... Datorren urtean, berriz, merzedez...



SORA (2011)

2008an osatu zen emakumezkoen lehen taldea Soraluze Futbol Taldean eta 2014ra arte lortu zuten emakumezkoen taldeak osatzea klubean. Soratik aparte, Soraluzeko emakumezko futbolari askok jokatu dute eta jokatzen dute inguruko herrietako klubetan: Bergaran, Eibarren, Elgoibarren... 2011n Alana Berraondok zuzendu zuen kadete mailako taldea da argazkian ageri dena.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Markel Atxotegi Arruabarrena
Irailaren 17an, 2 urte. Zorionak Marke!!! 2 urte ia etxeko txikixak. Segi inguru danak pozez alaitzen. Etxeko guztien partez!!



Iñaki Larrañaga
Irailaren 7an, 54 urte. Zorionak Iñaki!!!!



Naia Bollar
Irailaren 5ean, 6 urte. Zorionak printzesa! Segi holako alai eta ausarta izaten! Etxekuen partez



Irea eta Unai Andres Martin
Uztailaren 25ean, 10 urte eta irailaren 3an 5 urte. Zorionak bitxitos!!! Patxo bat etxekuen partez.



Oinatz eta Eire Beretxinaga Heriz
Irailaren 4an eta 23an, 10 eta 6 urte. Zorionak bikote!! Segi zuen alaitasunakin inguruak zipriztintzen. Patxo handi bat etxekuen partez.



Peru Soriano Sebal
Irailaren 27an, 5 urte. Zorionak gure mutil haundixari! Pila bat maotxe zaitxugu. Ibai ta familia guztian partez.



Julen Aristi Sanchez
Irailaren 5ean, 3 urte. Zorionak potxolo!! Patxo haundi bat etxeko guztien partez!! Segi beti bezain alai!!



Ander Pastoriza
Irailaren 21ean, 17 urte. Zorionak mutiko!! Ondo pasa zure egunean.



Iraia Larrañaga Casado
Irailaren 7an, 6 urte. Zorionak printzesa! Segi beti bezain alai eta irribarretsu! Etxeko guztien partez.



Sara eta Maren
Abuztuaren 21ean eta irailaren 25ean, 4 urte eta 8 urte. Zorionak etxekoen partez! Gure etxeko bi sorgintxoei.

ESKELAK

ESKELA



Luisja Uriarte Azpiazu



2021eko uztailaren 25ean hil zen, 62 urte zituela.

Beti gurekin!

Zure koadrila Zazpi Lagun eta Karropotes Autentikoa.

ESKELA



Jose Ramon Oregi Laskurain 'Poto'



2021eko uztailaren 30ean hil zen 65 urte zituela.

Taldeko diruzain eta gidari, arazoekonpontzaile. Ingurukoengatik hainbeste emon duan laguna. Hire hutsunea somatzen juau, ez gauaz preparatuta. Hagan lekutik, Poto, zaindu hegik hire koadrila.

Bandera trapo.

ESKELA

Bittor Trebiño Galarraga

2021eko irailaren 19an hil zen 69 urte zituela.



Elkarlanean, elkar ikasiz, elkar agurtuz.

Antzuola Herri Eskola.

ESKELA

Bittor Trebiño Galarraga

2021eko irailaren 19an hil zen 69 urte zituela.



Naturak zure gorputzarekin ahal izan du,
baina ez gugan utzi duzun oroimenarekin.
"Lurrak goxo har zaitzala"

Plazentzian Kantuan.

ESKELA

Bittor Trebiño Galarraga

2021eko irailaren 19an hil zen 69 urte zituela.



Bittor, euskaltzale fina, bidean lagun izan zaitugu beti.
Eskerrik asko gure hizkuntzaren eta herriaren alde egin duzun
lan guztiagatik.

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarte.

ESKELA

Esperanza Alberdi Azkarate

Irailaren 15ean hil zen, 91 urte zituela.



Ama ona, amandre hobe. Gure ondotik joan zara, baina gure
oroimenean betiko. Mila esker agurrean lagundu diguzuen
guztioi.

Etxekoak.

ESKELAK JARTZEKO: 943 75 13 04
edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak:

- ▶ Arrunta: 75 € / Bazkideek 60 €
- ▶ Handia: 120 € / Bazkideek 96 €

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Jose Ramon Oregi Laskurain
Jesusa Maiztegi Gallastegi
Mari Carmen Aspe Laskurain
Angeles Yanguas Nogales
Esperanza Alberdi Azkarate
Bittor Trebiño Galarraga

Jaiotakoak

Abu Bakr Sijilmassi Nouayti
Elene Alberdi Fayanas
Elene Torrientes Cortes

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

Aprende euskera,
con la mejor
compañía

aek

euskara praktikoa



Ilxar Eratsun Urteleleia eta Kika Palmir
Huele AEK-ko irakasketa eta ikaslea

Soraluzeko AEK euskaltegia

EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

AURREZ AURRE eta **AUTOIKASKUNTZA** · PRESENCIALES y AUTOAPRENDIZAJE

Metodologia komunikatiboa · metodología comunicativa

Ordu-tegi malgua · horarios flexibles

> 16 urtetik gorakoentzat · > para mayores de 16 años

A1/A2 mailak grupos de iniciación (acreditación del nivel en el euskaltegi)

B1/B2/C1/C2 mailak HABEren azterketak prestatzeko aukera

MINTZATALDEAK euskaraz hitz egiteko erraztasuna lortzeko · para hablar con fluidez

BESTELAKO ESKAINTZA · OTRAS OPCIONES:

cursos ONLINE ikastaroak

Enpresetarako ikastaroak · cursos para empresas

Matrikula-epa irailaren 30era arte · Plazo de matrícula hasta el 30 de septiembre

Baltegieta 2 · **943 75 14 34** · soraluze@aek.eus

DIRULAGUNTZAK / BECAS

EUSKO JAURLARITZA:

maila egiaztatuz gero.
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

SORALUZeko UDALA / AYUNTAMIENTO DE SORALUZE

matrikularen %100 berreskuratzeko aukera
opción de recuperar el 100% de la matrícula